4.alea

*Publikako Irakasleen informazio boletina*

# IrakaskuntzaCCOOak

*Boletín informativo docentes pública*





1 TOPAGUNE: SEGREGAZIOAREN KONTRAKO MANIFESTAZIOA / TOPAGUNE: MANIFESTACIÓN EN CONTRA DE LA SEGREGACIÓN

2 DESBUROKRATIZAZIO BATZORDEA / COMISIÓN DE DESBUROCRATIZACIÓN

3 BIRBAREMAZIOA / REBAREMACIÓN

4 BIRBAREMAZIOA 2026-2027: SARBIDEA ZERRENDA BERRIETARA / REBAREMACIÓN 2026-2027: ACCESO A NUEVAS LISTAS

5 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA / SERVICIO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

6 SAILAREN AZKEN BERRIAK / ÚLTIMAS NOTICIAS DEL DEPARTAMENTO

7 ADINAREN ARRAZOIARENGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEA / REDUCCIÓN DE JORNADA LECTIVA POR RAZONES DE EDAD

8 UNIBERTSITATE AURREKO ORIENTAZIOA / ORIENTACIÓN PREUNIVERSITARIA

## 1 TOPAGUNE: SEGREGAZIOAREN KONTRAKO MANIFESTAZIOA / TOPAGUNE: MANIFESTACIÓN EN CONTRA DE LA SEGREGACIÓN

**GOGORATU!! LARUNBAT HONETAN MANIFESTAZIOA BILBON.**

Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunetik manifestazio bat deitu dute Eskola Publikoaren alde egiteko eta eskola-segregazioaren arazoa guztiona den Eskola Publikoa lehenetsiko duten neurriekin baino ez dela konponduko aldarrikatzeko.

Manifestazioa Bilbon izango da, azaroaren 29an arratsaldeko 17:30ean. (Gran Vía 85 )

**CCOOirakaskuntzak Topagune plataformarekin bat egiten du eta bertan egongo gara Hezkuntza Publikoa defendatzeko.**

Zatoz gurekin Euskal Eskola Publikoa defendatzera!




**¡¡RECUERDA!! ESTE SÁBADO MANIFESTACIÓN EN BILBAO.**

Euskal Eskola Publikoaz Harro Topagunea ha convocado una manifestación a favor de la Escuela Pública y para reivindicar que el problema de la segregación escolar solo se solucionará con medidas que prioricen la Escuela Pública.

La manifestación tendrá lugar en Bilbao el 29 de noviembre a las 17:30 horas. (Gran Vía 85 )

**CCOOirakaskuntza nos unimos a la movilización del Topagune y allí estaremos defendiendo la Educación Pública.**

¡Ven con nosotros a defender la Escuela Pública Vasca!

# 2 DESBUROKRATIZAZIO BATZORDEA / COMISIÓN DE DESBUROCRATIZACIÓN

***DESBUROKRATIZAZIO BATZORDEA: EZ BADUZU EZER KONPONDU NAHI, EGIN EZAZU BATZORDE BAT***

Hezkuntza Sailak, hezkuntza publikoak bizi duen egoera larriaren aurrean, *ad hoc* batzordeak diseinatzeko estrategia garatu du, eta, horien bidez, sektoreko langileek, ikasleek eta familiek dituzten arazo ugariei erantzuna emango diela adierazi du.

**CCOOirakaskuntzak** mesfidantzaz erantzun dio batzorde horiek sortzeari; izan ere, edukirik gabe sortzen dira, erabaki garrantzitsuak sailaren esku utziz, eta azken finean hain garrantzitsuak ez diren erabakiak denboran luzatuz.

Hala, **CCOOirakaskuntzak** salatu egin du errealitate hori, bai segregazioaren aurkako batzordean, bai desburokratizazio batzordearen sorreran.

Azaroaren 24an, Lakuan, burokratizazio Batzordearen hirugarren bilera egin da. Bertan, datuak eman dizkigute eta datu horiek aztertzeko metodologia eta prozesua adierazi digute.

**CCOOirakaskuntza** uste zuen moduan, desburokratizazioaren zatirik garrantzitsuena, ezabatu beharreko izapide burokratikoei buruzko baliabideei eta erabakiei eragiten diena, batzorde honen erabakietatik kanpo geratuko da. Batzordeak, oraingoz, irakaskuntza-lanaren ohiko prozesuak automatizatzen eta ez errepikatzen saiatuko da, eta horrek burokraziaren arazo gutxien dituzten alderdietan zentratzea eskatzen du.

Inkestari emandako erantzunetan, irakasleek orokorrean adierazi dute automatizagarriak ez diren prozesu asko daudela baina iritzi hau ez dira kontuan hartu.

**CCOOirakaskuntzak** ez du argi ea prozesu hau aurrera eramatearen ahalegina penak merezi duen, kontutan hartuta bideratu daitezkeen baliabideak ere (prozesua sailetik kanpoko erakunde bat egiten ari da, eta ez digute jakinarazi akordio ekonomikorik dagoen ala ez).

Hala ere, batzordean parte hartzen jarraituko dugu, sektoreko langile-klasearen ahotsa gure esku dauden gune guztietara irits dadin, baina ohartarazten dugu bide horretatik konpondu nahi diren arazoak kronizatu egingo direla, burokraziari lotutako interesei buruzko hausnarketa sakona egiten ez bada.

**CCOOirakaskuntzak** proposatu du burokrazia funtsean ezabatzea eta beharrezkoa dena administrazioko eta/edo orientazioko langile berrietara bideratzea; horretarako, giza baliabideak bideratu behar dira.

***COMISIÓN DE DESBUROCRATIZACIÓN: SI NO QUIERES ARREGLAR NADA, HAZ UNA COMISIÓN***

El Departamento de Educación, ante la grave situación que atraviesa la educación pública, ha desarrollado la estrategia de diseñar comisiones *ad hoc,* mediante las que afirma que dará respuesta a los muchos problemas que sufre la clase trabajadora del sector, así como el alumnado y las familias.

**CCOOirakaskuntza** ha respondido a la creación de estas comisiones con recelo, ya que se crean vacías de contenido. Esto hace que la toma de decisiones sobre temas no especialmente relevantes se dilate en el tiempo, mientras que es el Departamento quien decide unilateralmente sobre los temas más importantes.

**CCOOirakaskuntza** ha denunciado esta realidad tanto en la comisión antisegregación como en la creación de la comisión de desburocratización.

El 24 de noviembre, en Lakua, ha tenido lugar la tercera reunión de la comisión de desburocratización. En ella se nos han proporcionado datos y se nos ha indicado la metodología y el proceso para el análisis de los mismos.

Como **CCOOirakaskuntza** se temía, la parte más importante de la desburocratización, aquella que afecta a los recursos y a las decisiones sobre qué trámites burocráticos son objeto de ser eliminados, quedará fuera de las decisiones de esta comisión. De momento únicamente se tratará de automatizar y no repetir aquellos procesos habituales del trabajo docente, lo que implica centrarse en aquellos aspectos menos problemáticos de la burocracia.

En las respuestas al formulario, el profesorado ya ha indicado de manera generalizada que existen multitud de procesos que no son automatizables, pero no se ha tenido en cuenta.

**CCOOirakaskuntza** se pregunta si merecen la pena el esfuerzo de quien está llevando adelante este proceso y los posibles recursos destinados al mismo (lo está realizando una entidad externa al Departamento y no se nos ha informado sobre si existe o no un acuerdo económico).

No obstante, seguiremos participando en la comisión para que la voz de la clase trabajadora del sector llegue a todos los espacios que se nos permita, pero advertimos de que por este camino los problemas que se pretenden atajar se van a cronificar: ¡es necesaria una reflexión en profundidad sobre los intereses ligados a la burocracia!

**CCOOirakaskuntza** propone eliminar sustancialmente la burocracia y derivar la necesaria a nuevo personal administrativo y/o de orientación, para lo que hay que destinar recursos humanos.



# 3 BIRBAREMAZIOA / REBAREMACIÓN

Birbaremazio prozesua datorren astelehenean bukatuko da. Egin behar izanez gero hementxe gehitu daitezkeen dokumentazio zerrenda eta dagokion puntuazioa:




El próximo lunes finalizará el proceso de rebaremación. Si aún tienes pendiente el hacerlo aquí te resumimos la documentación que puedes adjuntar y la puntuación correspondiente:




Honetaz gain, prozesuan zalantzak badituzu gure bideo-tutorialak ikustea gomendatzen dizuegu, oso lagungarriak dira!

Bideoak gure Telegram kanalean eskuragarri dituzu, beste berriekin batera. Oraindik ezagutzen ez badezu sartu zaitez!!

Asimismo, si tienes dudas durante el proceso te recomendamos que veas nuestros vídeos tutoriales, te serán de gran ayuda!

Los tienes disponibles en nuestro canal de Telegram, al igual que todas las novedades. Si aún no lo conoces, ¡¡únete!!

https://t.me/irakasleak_iCCOO



## 4 BIRBAREMAZIOA 2026-2027: SARBIDEA ZERRENDA BERRIETARA / REBAREMACIÓN 2026-2027: ACCESO A NUEVAS LISTAS

***Birbaremazioa 2026-2027: Sarbidea zerrenda berrietara***

III. Eranskineko aldaketa egon arren, Arkitektura tituludunak eta Arkitekturan Masterra dutenek ezin izango dute aplikazioaren bidez izena eman akats tekniko bat dela-eta. Eragindako pertsona guztiei gomendatzen diegu birbaremazio prozesuan alegazioak aurkeztea, Teknologia espezialitateko zerrendetan sartzea aztertu ahal izan dadin.

Arkitektoen kolektiboak urteak daramatza Teknologia espezialitateko ordezkoen zerrendetara sartzeko aukera eskatuaz, eta pozgarria da 2026-2027 ikasturterako birbaremazioan, azkenean, Titulazioen eta Espezialitateen III. Eranskinean aldaketa bat jasota agertzea.

Hala ere, naiz eta **CCOOirakaskuntzak** behin eta berriz eskatu, sailak ez du garaiz eguneratu aipatutako zerrenda, eta horren ondorioz, Arkitekturako Oinarriak Gradua soilik ageri da, Arkitektura titulua eta Arkitekturan Masterra kanpo utzita. Hala eta guztiz ere, departamentuak akats hori zuzentzeko borondatea duela adierazi du.

***Rebaremación 2026-2027: Acceso a nuevas listas***

A pesar de la modificación del Anexo III, los titulados en Arquitectura y Máster en Arquitectura no podrán inscribirse vía aplicación debido a un fallo técnico. Se recomienda que se presenten alegaciones en el proceso de rebaremación para que pueda considerarse su incorporación a las listas de la especialidad de Tecnología.

El colectivo de arquitectos y arquitectas lleva años reclamando la posibilidad de acceder a las listas de candidatos a sustituciones de la especialidad de Tecnología, por lo que celebramos que en la rebaremación para el curso 2026-2027 se haya incorporado finalmente esta modificación en el Anexo III de titulaciones y especialidades.

A pesar de las reiteradas peticiones de **CCOOirakaskuntza**, el Departamento no ha actualizado a tiempo dicha lista, de modo que solo figura la titulación de Grado en Fundamentos de Arquitectura, dejando fuera a los titulados en Arquitectura y los máster en Arquitectura. No obstante, hay voluntad por parte del Departamento de subsanar ese error.



## 5 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA / SERVICIO DE PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

**CCOO Irakaskuntzak** Hezkuntza Sailaren lan arriskuen prebentzio-zerbitzuaren eraginkortasun eza salatzen du, Plentziako eta Santurtziko kasuetan agerian geratu den bezala.

Sailak, zerbitzu honi eskaintzen dizkion baliabideak ez dira nahikoak. Beharrezko ebaluazio psikosozialak ez dira egiten, eta ez dira prebentzio-neurri eraginkorrak ezartzen. Era berean, argi dago teknikari gabezia dagoela: soilik 14 teknikari daude EAEko ikastetxe publiko guztietarako.

Gure eguneroko lan-baldintza gogorren ondorio zuzena dira irakasleok jasaten dugun estresa, antsietatea eta depresioa; hala ere, gaixotasun hauek ez dira laneko gaixotasun bat bezala jotzen. Gobernuak, egoera hau modu iruzurrezkoan erabiltzen du, gu absentismoaz salatzeko.

Sailak eskaintzen duen arreta psikologikoa, lagungarria izan daitekeela argi dago, baino irtenbide aringarri bat dela uste dugu hau da, benetan eraginkorrak diren konponbideak ez dira ematen.

**CCOOirakaskuntza** denuncia la ineficacia del servicio de prevención de riesgos del Departamento de Educación, que ha quedado patente en los casos de IES Uribe Kosta BHI de Plentzia e IES Kantauri BHI de Santurtzi.

Los recursos dedicados por parte del Departamento a este servicio son manifiestamente insuficientes. No se realizan las evaluaciones psicosociales necesarias y no se implantan medidas de prevención eficaces. Asimismo, hay una carencia de técnicos manifiesta, solo 14 para cubrir toda la red de centros públicos de la CAV.

El estrés, la ansiedad y la depresión que sufrimos los docentes son consecuencia directa de las duras condiciones de trabajo en las aulas; sin embargo, estas enfermedades no están reconocidas como laborales; este hecho es utilizado de manera capciosa por el Gobierno para acusarnos de absentismo.

El Departamento ofrece un servicio de atención psicológica que puede ayudar, pero consideramos que es una medida meramente paliativa que oculta la ausencia de soluciones realmente eficaces.

.

## 6 SAILAREN AZKEN BERRIAK / ÚLTIMAS NOTICIAS DEL DEPARTAMENTO

***Erasoen gaineko protokoloa eta prozedura:***

- Gogorarazten dugu eraso bat gertatuz gero ikastetxeko zuzendaritzariari jakinarazi behar zaiola, kasu bakoitzean beharrezkoak diren kudeaketak egin ditzan. Gida honek jarduera-protokoloa jasotzen du, jarraibide eta eranskinekin batera: hemen.

- Halaber, pertsona batek bere osasunari eragiten dion erasoren bat edo kontu psikosozialen inguruko konturen bat isilpean azaldu nahi badu, Prebentzio Zerbitzuarekin harremanetan jar daiteke, osasun-arloari egindako errekerimendu baten bidez: hemen.

***Lekualdatze lehiaketaren hasiera data:***

- Abenduaren 17an hasiera emango zaio aurtengo lekualdatze lehiaketari. Deialdiarekin batera orientazio moduan lanpostu hutsen behin-behineko zerrenda bat argitaratuko da. Zerrenda horretako lanpostuak ez direla behin betikoak ezta lotesleak ere, eta horietan aldaketak egon daitezkeela eta lanpostu gehiago sartu daitezkeela prozeduran. Horrez gain, resultetan parte hartzaileen libratzen dituzten lanpostuak ere sartuko dira prozesuan; beraz, aurreko urteetan bezala lanpostu guztiak hartzeko aukera egongo da.

***Azaroko nomina:***

- Sailak aurreakordioan sinatutako soldata igoera aplikatzeko Gobernu Kontseiluaren onespena izan behar duela eta EHAAn argitaratu behar dela jakinarazi digu . Hori dela eta, azaroko nominan igoera eten egingo da Gobernu Kontseiluan testu osoa onartu arte. Behin Gobernu Kontseiluak onartuta, igoera atzeraeragintasunez ordainduko da azarotik aurrera.

***Birbaremazioa:***

- Azaroaren 21ean hasi zen prozesua zabalik dago abenduaren 1era arte.

***Berratxikipen prozesua:***

- Datorren astean amaituko da prozesua eta abenduaren lehenengo hamabostaldian argitaratuko dira emaitzak.

***Protocolo y procedimiento ante agresiones:***

- Cualquier agresión deberá de comunicarse a la  Dirección del Centro para que se realicen las gestiones que sean necesarias en cada caso. La siguiente Guía de Actuación contiene un Protocolo de Actuación con pautas y anexos: aquí.

- También en el caso de que una persona desee exponer de forma confidencial una agresión o un aspecto psicosocial que afecte su salud, puede ponerse en contacto con el Servicio de Prevención mediante un requerimiento al área sanitaria: aquí.

***Inicio del concurso de traslados:***

- El 17 de diciembre comenzará el concurso de traslados de este año. Junto con la convocatoria se publicará una relación provisional de vacantes de carácter orientativo. Los puestos de esta relación no tienen carácter definitivo ni vinculante y pueden sufrir modificaciones y pueden incorporarse más puestos al procedimiento. Además, se incluirán en el proceso los puestos que liberen a los participantes en las resultas, por lo que al igual que en años anteriores se podrá optar por la totalidad de los puestos.

***Nómina de noviembre:***

- La aplicación del incremento salarial firmado en el preacuerdo requiere aprobación por Consejo de Gobierno y publicación en el BOPV. Por ello, en la nómina de noviembre se suspenderá el incremento hasta la aprobación del texto íntegro en Consejo de Gobierno. Una vez aprobado por el Consejo de Gobierno, la subida se abonará con carácter retroactivo a partir del mes de noviembre.

***Rebaremación:***

- Sigue abierto el proceso que se inició el pasado viernes día 21 de noviembre hasta el 1 de diciembre.

***Proceso de readscripciones:***

- La próxima semana finalizará el proceso y se publicarán los resultados en la primera quincena de diciembre.



## 7 ADINAREN ARRAZOIARENGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEA / REDUCCIÓN DE JORNADA LECTIVA POR RAZONES DE EDAD

- ***Karrerako funtzionarioak - Urteko gozamena***
  - Gaur, azaroak 28, adinagatik irakastorduak murrizteko **URTEKO MODALITATEA**ren onartu eta baztertuen **BEHIN BETIKO** zerrendak argitaratu dituzte.
  - Kurtso hasieratik eskatutako eta merezitako murrizketetan egon den atzerapena konpentsatzeko behin betiko irtenbidearen zain gaude momentu honetan.
  - **EBAZPENA** honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, http://www.euskadi.eus/euskojaurlaritza/hezkuntza-saila/ web orrian argitu eta biharamunetik aurrera, Administrazioen betiere Administrazio Herri Prozedura Erkideearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 112.1 artikuluari dagokionez, 121. artikuluan eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.
  - Zerrendak hemen.

***Funcionarios de carrera - Disfrute anual***

- A fecha de 28 de noviembre se han publicado las listas **DEFINITIVAS** de personas admitidas y excluidas de la **MODALIDAD ANUAL** de reducción de horas lectivas por razón de edad.
- En estos momentos estamos a la espera de la solución definitiva para compensar el retraso en el disfrute de estas merecidas reducciones que se pidieron a comienzo de curso.
- **RECURSO:** Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes, en relación con el 112.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en la web.
- Listados aquí.



eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

## 8 UNIBERTSITATE AURREKO ORIENTAZIOA / ORIENTACIÓN PREUNIVERSITARIA

- Batxilergoko eta lanbide heziketako orientazio irakasleentzako informazio garrantzitsua: UNIBERTSITATE AURREKO ORIENTAZIOA.
- Abenduaren 1ean irekikoda EHUko jardueretan izena ematekio epea. **CCCOOirakaskuntzak** UPV/EHUko informazio guztia ematen dizugu.

- Información importante para orientación y profesorado de bachiller y formación universitaria: ORIENTACIÓN UNIVERSITARIA.
- El día 1 de diciembre se abre el plazo a las inscripciones para las actividades de la EHU/UPV. **CCCOOirakaskuntza** te facilita toda la información de la EHU/UPV.




